

# EUSKARA

## GAITASUN MAILA

### C1

GAITASUN maila hizkuntzen ikasketa, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren (EEMB) C1i dagokio, eta marko honetan "Gaitasun operatibo eraginkorra" esaten zaio.

EEMBk C1 mailan (aurrekoekin alderatuta) honako hau azpimarratzen du: jario handiko komunikazioa ahalbidetzen duen hizkuntza baliabide zabalaren jabe izatea.

Maila honetan aurrekoetan baino funtsezkoagoa izango da ikaslearen autonomia. Izan ere, dagoeneko baditu beharrezkoak zaizkion tresnak bere kabuz ere aurrera egiteko, ez bakarrik irakaslearen gidaritzari jarraituz. Horretarako eskura dituen aukera guztiak bilatu eta aprobetxatu egin beharko ditu.

EEMBk C2 maila ere deskribatzen du. Maila honetan, C1ekin alderatuta, hizkuntz erabileraren erraztasun eta zehaztasun handiagoak azpimarratzen ditu.

## Helburu orokorrak

Erraz komunikatzea, bai ohiko egoeretan eta bai egoera berezi eta zailagoetan ere, esparru pribatuan zein publikoan, lanbidean eta hezkuntzan. Beraz, mintzatu eta idazteko jarioa eta sormena lortzea, eta egituraren eta kontzeptuen aldetik konplexuak diren testu idatziak eta ahozkoak ulertzea.

Idea nagusiak ulertzea eta berariazko informazioa ateratzea askotariko ahozko eta idatzizko testuetatik, ikasten duten hizkuntzaren aldaera hedatuenetan, estilo ezberdintasunak antzemateko sena erakutsiz eta, ahozko komunikazioan, benetako testuinguruaren zailtasunak gaindituz.

Mintzakideen jarrerak, gogo aldarreak eta asmoa eta haien arteko harremanak ulertzea.

Ahozko eta idatzizko testu mota bakoitzaren xedea eta funtzioa antzematea.

Hainbat egoera ezberdinetan berehala eta egoki erreakzionatzea.

Komunikazio estrategiak eraginkortasunez erabiltzea, bai hizkuntzazkoak eta bai bestelakoak.

Lexikoa eta egiturak gai jakin baten eta komunikazio egoera baten arabera moldatzea.

Ahozko eta idatzizko kodeen diferentzietan antzematea, eta bai ikasten duten hizkuntzaren erregistro eta aldaerei ere.

Euskal gizartea eta kultura ahalik ongien ezagutzea, hizkuntza hobeki ulertzeko eta komunikazioa aberasteko.

Oinarriak ezartzea hizkuntza nork bere kabuz sakontzen jarraitzeko.

## Helburu espezifikoak

### Irakurmena

- Ideia orokorra ulertzea, alderdi nagusiak eta garrantzizko xehetasunak bereiztea hainbat motatako testuetan, gaia konkretua izan nahiz abstraktua, baita bere espezialitatekoa ez denean ere, pasarte ilunenak behin baino gehiagotan irakur baditzake.
- Iritzi eta jarrerari antzematea, bai eta haien egilearen asmoari eta aldarreei ere.
- Ideiak eta informazioa ateratzea egitura konplexuko testuetatik, kultur erreferentziak eta maiz erabiltzen diren esapide idiomatikokoak izaten dituzten horietatik.
- Idatzizko testu edo agiri bat zein motatakoa den eta zer funtzio duen jakitea.
- Irakurtzeko modu ezberdinetara moldatzen jakitea: irakurketa osoa, selektiboa, estentsiboa, interpretaziozkoa.

## Entzumena

- Ahoz ematen diren hainbat motatako testuen esanahi orokorra, alderdi nagusiak eta xehetasunak eta mintzatzen direnen iritziak eta jarrerak aski erraz ulertzea, baita oso ongi entzuten ez denean ere, zuzeneko saioetan nahiz emitituetan, testuak ohiko abiaduran ahoskatu, azentu, erregistro eta estilo estandar ezberdinetan.
- Gai abstraktu edo konkretuen gaineko informazioa eta testuaren barneko ideiak ateratzea, baldin eta diskurtsoaren egitura argia bada eta gutxitan erabiltzen den esapiderik ez badu. Helburu bat lortzeko jarraibideak ulertzea. Testu baten funtzioa eta mota ezagutzea, bai eta hura ematen duenaren asmoa, jarrera eta aldartea ere.

## Idazmena

- Testu argi, ongi egituratu eta egokiak idaztea, helburu eta funtzio ezberdinetarako.
- Ikuspuntuak nahikoa luze azaltzea, ideiak eta informazioa modu koherentean antolatuz, argudio eta adibide aproposak erabiliz eta azalpenari amaiera egokia emanaz.
- Testuaren helbururako eta irakurleentzat estilo eta erregistro egokiak aukeratzea.
- Hizkuntza malgutasun eta eraginkortasunez erabiltzea. Halaber, hiztegi zabala erabiltzea, testuaren lokailu eta markatzaile egokiak, eta askotariko egitura eta ñabardurak, kasuan kasuko komunikazio egoerari dagozkionak.

## Mintzamena

Ikasleek gaitasun hauek lortu behar dituzte:

- Interes orokorreko gaiei buruz mintzatzeko jariora, bat-batekotasuna eta eraginkortasuna izatea -bai bakarrizketan bai elkarrizketan-; hizkuntzaren baliabideak eta baliabide estrategikoak behar bezala eta eraginkortasunez erabiltzea, eta ahozko komunikaziorako gizartean ezarrita dauden konbentzioei jarraitzea.
- Egoki erantzun eta erreakzionatzea hainbat egoeratan, hizkuntzaren erabilera emozionala, aipamenezkoa eta umorezkoa baztertu gabe. Aktiboki parte hartzea elkarrizketa informalean, interes orokorreko gai konkretu zein abstraktuak erabiliz. Ikasleak zerbait kontatu edo deskribatu beharko du zehatz-mehatz, bere ideiak azaldu eta bere jarrerak defendatu.
- Eztabaida formalean informazioa aurkeztea, iritziak azaldu, justifikatu eta defendatzea, hipotesiak adieraztea eta aukerak ebaluatzea.
- Elkarrizketa batean solaskideei eragiteko moduan jardutea, ekinbidea hartuz; eztabaidatzen diren ideiak zabaltzea eta garatzea eta egoki aritzea bat-batean, aurrez prestatutako gidoi edo galdetegiaren beharrik izan gabe.
- Askotariko gaiei buruzko iragarki, mezu eta jarraibideak ematea.
- Arazo baten zergatikoak azaltzea, egin beharreko urratsak eztabaidatzea, aukerak alderatu eta erkatzea.
- Hainbat iturritatik jasotako informazio zehatza eta argudioak laburtu eta adieraztea.

## Zer komunikazio-jarduera egiten dira?

### Zein komunikazio-jarduera egiten dira?

*Hemen komunikazio-jardueren aukera bat dago adibide gisa. Ikus curriculuma jardueren deskripzio osoaren berri izateko.*

#### 1.1. Ahozko ulermen-jarduerak

##### A. Elkarreraginean

Elkarrizketatik kanpo egonda ere erraz jarraitu esaten ari direnaren hariari.

Eztabaidetan parte hartu, baita gaiak abstraktu samarrak edo ezezagunak zaizkienean ere. Esamolde asko ezagutu.

Erregistro aldaketei antzeman eta haiei egokitu jarduna.

Argibide tekniko luzei jarraitu, beren espezialitatekoak izan ez arren.

Informazio eta iritziak elkarri adierazi, egiaztatu eta berretsi.

Etenaldi, tonu, doinu, mugimendu eta keinuen xede komunikatiboa antzeman eta berauek erabiltzen jakin.

## **B. Entzuteko**

### *Elkarrizketak eta eztabaidak*

Gai abstraktu eta konplexuei buruzko diskurtso luzeei jarraitu, horretarako xehetasunen bat egiaztatu beharra badu ere, batez ere mintzakidearen azentua estandarretik urruntzen denean.

### *Narrazioak, deskripzioak eta aurkezpenak*

Hitzaldi eta eztabaida gehienak erraz ulertu.  
Hitzaldietan ohar zehatzak hartu.

### *Iragarkiak eta argibideak*

Soinu kalitate eskaseko adierazpen publikoetatik informazio zehatza atera.  
Argibide zehatzak, luzeak eta zailak ulertu.

### *Ikus-entzunezko mezuak eta grabatutako materialak.*

Grabatutako eta komunikabideetatik hartutako materiala ulertu, ezohiko erabileraren bat edo zertzeladak barne, esate baterako hiztunen jarrerak.  
Filmak ulertu baita esamolderen batzuk edota pasarteren batean lagunarteko hizkera agertzen bada ere.

## **1.2. Irakurriaren ulermen-jarduerak**

### **A. Elkarreraginean, gutunak eta oharrak**

Xehetasun guztiekin ulertu gutun pertsonalak eta formalak, oharrak, mezu elektronikoak, SMSak, faxak, etab. esparru pertsonal, akademiko zein profesionalekoak.  
Solaskidearen hurbiltasuna antzeman. Horretarako aintzat hartu harreman mota, kortesia-formulak, informazioa eta erregistroa. Eta erantzunean erregistro berberari eutsi.

### **B. Irakurtzeko**

#### *Orientazioa eta informazioa*

Testu luzeetan xehetasun adierazgarriak erraz aurkitu eta informazioak jaso hainbat iturritatik lan zehatz bat egiteko.  
Albiste, artikulua, txosten eta iragarkien edukia zein den eta nolako garrantzia duten arazorik gabe antzeman baldin eta oso gai espezializatuak ez badira.

#### *Arrazoiketa*

Zehaztasunez ulertu askotariko testu luze eta zail samarrak bizitza sozialekoak nahiz arlo profesionaleko edo akademikokoak.  
Erraz antzeman jarrera eta iritzi esplizitu zein implizituak adierazten dituzten zehaztasunak.

#### *Dibertimenduzko irakurketa*

Egungo literaturako testuetan ulertu argudioa, pasarte nagusiak eta bigarren mailakoak, pertsonaien ezaugarriak eta gaia, esamoldeak agertu arren edota lagunarteko hizkera.  
Testua dagozkion ezaugarri kulturaletan interpretatu.

## **1.3. Ahozko adierazpen-jarduerak**

### **A. Elkarreraginean**

Bertako hiztunekin jardun, gaiak ezezagun, abstraktu edo zail samarrak izanik ere.  
Nabarmendu aipagarritzat jotzen dituen gertakariak eta iritziak doinu, lexiko egoki edo harriduraren bidez.

### *Eztabaidak eta debate formalak*

Bertako hitzuneekin berriketan jardun zehaztasun eta jariotasunez, ia ahaleginik egin gabe, esanahi ñabardurak adieraziz.

Hainbat gertakizun eta esperientziak berarentzat duten garrantzia eta sortzen dioten zirrara azaleratu.

Harridura, zorientasuna, atsekabea, interesa eta axolagabetasuna adierazi eta haiei erantzun.

Gai bati buruzko norberaren ikuspegia azaldu, aldeko eta kontrako hainbat jarrera erakutsiz.

Argudioak garatu modu argian, ideia osagarriak eta adibideak erantsiz.

Mintzakideen argudio eta ikuspegiei iruzkinak egin.

### *Negoiazioak*

Transakzioetan, estutasunak edo zailtasunak sortu arren, aise aritu, eta lagundu beste lagun batzuei ere horrelakoetan aurrera eginen.

Zenbaterainoko gogobetetasuna edo nahigabea nabaritu dugun ñabardura ugarirekin adierazi.

Denda, banketxe eta abarretan ezohiko egoerak (erosketa bat itzuli, adibidez) bideratu.

Zerbait nola egin adierazten duten argibideak eman, luzeak eta zehatzak izanda ere.

Hainbat txostenetako argudio eta informazioak laburbildu.

### *Elkarrizketak*

Bat-batekotasunez eta inolako ahaleginik egin gabe erantzun elkarrizketa edo kontsulta bati.

Elkarrizketa batean norberaren ideiak garatu eta aurrea hartu modu egokian.

Egoerak agintzen duen hurbiltasun edo formaltasunaz jokatu.

### *Diskurtsoa kontrolatzea*

Solaskideek ulertu dutela ziurtatu.

Ulermena ziurtatu, gauzak errepikatuz, berriro formulatuz eta itzulinguruen bidez.

Esanahiak argitu, hainbat baliabide erabiliz.

Informazio bat egiaztatu edo gezurtatu. Informazio bat zuzendu.

Nork bere buruari zuzenketak egin.

## **B. Hitz egiteko**

### *Deskripzioa eta narrazioa*

Gai zail samarrei buruzko deskribapen eta aurkezpen argiak eta zehatzak jario nahikoaz egin.

Ideiak indartzeko baliabide osagarriak eta adibide argigarriak erabiliko ditu.

Ideia zehatzak garatu eta bukaera egokia eman.

Narrazioak egin beste gai batzuekin osatuz, alderdi zehatzak garatuz eta egoki bukatuz.

Denbora-, espazio- eta logika-loturak zaindu eta informazio garrantzitsu nahikoa eskaini.

Ideiak uztartzeko malgutasunez erabili lokailuak eta diskurtso antolatzaileak.

### *Jende aurrean hitz egitea*

Jarriotasunez, ia ahaleginik gabe egin adierazpenak, esanahiaren ñabardurak erakusten dituen doinua erabiliz.

Gai baten aurkezpen argi eta ondo egituratua egin, luzatuz eta bereari eusteko ideia osagarriak, adibideak eta arrazoiak baliatuz.

Ondo erabili diskurtso antolatzaileak.

Bat-batekotasunez eta ia ahaleginik gabe erantzun.

#### 1.4. Idatzizko adierazpen-jarduerak

##### A. Elkarreraginean

Gai zaileri buruzko azalpen argiak eta ondo egituratuak idatzi, ideia nagusiak nabarmentzen dituzten azalpenak.

Norberaren ikuspegiari eutsi. Horretarako ideia osagarriak, arrazoiak eta adibide egokiak erantsi.

Oharrak idatzi informazioak emateko edo azalpenak eskatzeko eguneroko jardueretan berarekin diharduten pertsoneri (lankide, irakasle, etab.). Bertan azpimarratu garrantzitsua deritzona.

Mezu elektronikoak eta SMSak idatzi.

Gutun formalak eta merkataritza-korrespondentzia idatzi.

##### B. Adierazteko

Irudimenezko testu eta deskribapenak idatzi, era argi eta zehatzean, ondo egituratuta, estilo sinesgarri eta naturalean, zuzentzen zaien irakurleei egokিতuta.

Ikuspegi baten alde edo aurka idatzi; eman argudioak eta azaldu hainbat aukeren alde on eta txarrak.

Zenbait iturritatik hartutako argudio eta informazioak laburbildu.

Film, liburu edo antzezlan baten idatzizko aipamena egin.

### Nolako testuak irakurtzen dira?

**Maila honetako testuak horrelakoak izango dira: luzeak eta zail samarrak, egitura korapilatsukoak, esamoldeak eta lagunarteko hizkera jaso eta informazio esplizitu, implizitu nahiz ironikoa ematen dutenak.**

Liburuak: eleberririk, ipuinak, biografiak, bestelako narrazioak.

Prentsa (aldizkariak, egunkariak): albisteak, dibulgazio-artikuluak eta erreportajeak, elkarrizketak, editorialak, iritzi-artikuluak.

Argibideak ematen dituzten liburuxkak (brikolajea, sukaldeko errezeta-liburuak, etab.).

Testu sozial formalak eta informalak: (gonbidatzeko, onartzeko, uko egiteko, eskertzeko, eskatzeko, barkamena eskatzeko, agurtzeko, aurkezteko, zoriontzeko eta doluminak emateko).

Komikiak.

Foiletoak, liburuxkak, panfletoak.

Publizitateko materiala.

Kartelak eta kaleko seinaleak.

Administrazioaren testu konbentzionalak.

Hiztegiak: elebidunak zein elebakarrak.

Gutun formalak nahiz pertsonalak.

Iruzkinak.

Foro eta blogetako ekarpenak.

Txostenak eta lanak.

Ohar eta jakinarazpenak.

Eleberririk, ipuin edo bestelakoen aipamenak.

### Nolako testuak entzuten dira?

**Maila honetako testuek informazio esplizitua nahiz implizitua ematen dute. Distorsio akustiko txikia izan dezakete. Edozein erritmotan jarduten duten hiztunak entzuten dira.**

Hitzaldiak, diskurtsoak, jendurreko aurkezpenak.  
Gaur egungo gertaerak eta gaiak.  
Ikuskizunak :antzerki-lanak, irakurraldiak, abestiak.  
Dokumentalak, telebista- eta bideo-erreportajeak.  
Albiste-emanaldiak.  
Telesailak, filmak.  
Publizitatea: irratia, telebista, eta abar.  
Jendurreko eztabaidak eta debateak.  
Kontakizunak.  
Jarraibideak eta arauak.  
Laneko elkarrizketak.  
Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak eta bideokonferentziak.

## **Nolako testuak ekoizten dira?**

### **Hitz egiteko**

Telefono bidezko elkarrizketa formalak eta informalak.  
Kulturaren esparruko eta gaur egungo gai ezagunei buruzko iruzkinak, iritziak eta arrazoiketak.  
Mezuak argitu, azaldu, errepikatu, laburtu nahiz itzuli.  
Negoziatu.  
Elkarrizketak, mahai-inguruak eta taldeko solasaldiak.  
Jarraibideak, argibideak, arauak, oharrak eman.  
Pertsonak, objektuak, jarduerak, zerbitzuak, tokiak, bizi-baldintzak, interesak, sentimenduak eta alderdi soziokulturalak deskribatu eta alderatu.  
Gertaerak, esperientziak, pasadizoak eta proiektuak zehatz kontatu.  
Istorioak kontatu.  
Gaiak aurkeztu.  
Gai ezagunei buruzko ideiak eta jarduerak azaldu eta arrazoitu.  
Liburuak, telebista-programak eta filmak baloratu.  
Ekitaldiak, liburuak, filmak eta pertsonak aurkeztu.  
Aurretik prestatutako gai bati buruzko hitzaldi edo aurkezpenak egin.  
Albisteei iruzkinak egin.

### **Idazteko**

Arlo pertsonaleko, ikasketa nahiz lan arloko gutun formalak (gutunak, mezu elektronikoak, faxa) eta merkataritza-korrespondentzia; informazioa eskatzeko zein igortzeko, laguntza nahiz zerbitzu bat eskatzeko, arazo baten berri emateko, erreklamazio bat egiteko nahiz zerbait eskertzeko.  
Gai ezagunei buruzko mezuak txatetan eta foro birtualetan.  
Iritzi- eta arrazoiketa-testuak.  
Txostenak: egoera bat aurkeztu, ikuspegi bati eutsi, aukera baten abantailak eta desabantailak adierazi.  
Esperientziak, gertakariak, istorioak eta benetako nahiz alegiazko gertakariak kontatu.  
Planak eta egitasmoak deskribatu.  
Laburpenak.  
Liburu, film edo antzezlan baten iruzkinak eta aurkezpenak.  
Eskema,  
Jarraibide, argibide luzeak.

## **Zein gaitasun behar dira komunikazio-jarduerak burutzeko?**

Maila honetan garrantzi berezia hartzen dute gaitasunok, beren erabilera zuzena gakoa baita elkarren arteko harremanetan, besteak beste hurbiltasuna edo formaltasuna ondo bereizi ahal izateko, diskurtsoa modu egokian antolatzeke, sentimenak, emozioak, gogoak adierazteko.

*Hemen aukera bat dago adibide gisa. Ikus curriculuma gaitasunen deskripzio osoaren berri izateko.*

### **Gizarte erabilera**

Agurtu, despeditu, interpelazioak eta aurkezpenak.  
Esker ona adierazi.  
Norbaitez galdetu.  
Zorionak eman.  
Barkatzeko eskatu.  
Konplimenduak egin.  
Dolumina agertu.  
Gonbitak egin, onartu eta errefusatu.

### **Informazioa eskatu eta eman**

Pertsonen eta gauzen gaineko informazioa eskatu eta eman; ordutegiak, datak eta tokiak; gertaerak, prozesuak, jarduera eta egintzak.  
Inori zerbait badakien galdetu eta gauza bat dakizun ala ez adierazi, edo jakinarazi nondik heldu zaizun.  
Gauza bat egia den ala ez galdetu eta baieztatu.

### **Deskripzioa eta kontaketa**

Pertsonak, gorputzaren eta gogoaren egoerak, objektuak eta haien erabilerak, sentimenduak, prozesuak, aldaketak eta sistemak, bidaiak eta tokiak deskribatu.  
Ezaugarri buruzko iruzkinak egin.  
Lehenago, oraingo eta geroko gertaera bat kontatu.

### **Aurreikuspenak, asmoak, xedeak eta hipotesiak**

Pertsonen, gauzen, lehenago eta geroko gertaeren gainean hipotesiak egin.  
Gogoeta egin eta ondorioak atera.  
Ekintzen xedea adierazi.

### **Iritziak eta balorazioak**

Interesa edo interes falta adierazi.  
Gustuak eta zer nahiago den adierazi.  
Denetariko arte adierazpenak baloratu.  
Ados zauden ala ez adierazi.  
Iritziak eskatu eta eman.  
Iritzi edo ikuspuntu bat arrazoitu eta argudiatu.  
Uste bat adierazi.  
Zehaztasunez alderatu eta erkatu.  
Duda adierazi.  
Eszeptizismoa adierazi.  
Ziurtasun gradu ezberdinak adierazi.  
Gertaera bat nolakoa den adierazi: itxurazkoa, egi-antzekoa, litekeena edo ezinezkoa, gertakorra edo gertagaitza, erraza edo zaila, nahitaezkoa edo ez nahitaezkoa, debekatua edo onartua.

### **Sentimenduak, jarrerak eta aldarteak**

Gogo aldarte bat eta haren arrazoiak adierazi: satisfazioa edo insatisfazioa, mirespena, estimua, poza edo tristezia, esker ona, konfiantza, konfiantza falta, beldurra, asperdura, larrimina, axolagabetasuna eta haserre.

Gorputz edo osasun aldarte bat adierazi.

Gurari bat adierazi.

Damua adierazi.

Portaerak kritikatu.

Barkazioa eskatu eta barkatu.

Eraisi eta kexatu.

#### **Ekintzarako asmoak** (*funtzio pertsuasiboa edo induktiboa*):

Norbaitek zerbait egiteko asmoa, xedea ala erabakia hartu duen galdetu.

Zerbait egiteko asmoa, xedea eta erabakia hartu duela adierazi.

Promesak egin.

Jarraibideak eskatu eta eman.

Ekintza konkretu bat mesede gisa, premia gisa edo obligazio gisa eskatu.

Laguntza eskatu eta eskaini.

Zerbait egin, eskaini edo uko egin.

Zerbait egiteko baimena eskatu, eman edo ukatu.

Zuzen nahiz zeharbidez aginduak eman.

Debekatu.

Norbaiti zerbait egiteko obligazioa kendu.

Erreklamazioak egin.

Zerbait egin nahi den galdetu.

Norbaitek zerbait egin dezan nahia adierazi.

Kontseiluak eskatu eta eman.

Ekintza bat proposatu, iradoki edo gomendatu.

Limurtu.

Abisuak, gaztiguak eman.

Mehatxatu eta ikaratu.

Zerbait egitera bultzatu.

Hitzordu bat hartu. Norbaitekin hitzordua jarri.

#### **Diskurtsoaren antolamendua**

Gai baten hasiera iragarri.

Diskurtsoan tarteki hitzak sartu (luzamendurako, pentsatzeko beta izateko).

Digresio baten hasiera markatu.

Aurrera segi.

Norbere burua zuzendu, lehengoa ukatu, duda egin.

Enfasia adierazi.

Zehaztu eta ñabardurak eman.

Adibideak eman.

Gaia aldatu.

Gogora ekarri, aipatu eta zeharkako aipamenak egin.

Definizioak eman.

Azalpen batean gauzak banan-banan aipatu.

Denbora sekuentzia bat adierazi.

Laburpena egin.

Grafikoak, taulak eta estatistikak interpretatu.

Txostenak egin.

Diskurtsoan ideiak eta kontzeptuak lotu.

Bukaeraren hasiera eta ondorioa markatu.

Ahozko diskurtsoaren konbentzioak: hitza eskatu eta eman, eten, hitz egiten utzi.

Telefonoz hitz egiteko oinarriko konbentzioak (komunikazioa nola hasi, norbaitez nola galdetu, mintzakideari itxoiteko eskatu, ongi aditu ala ulertzen den baieztatu, adio esan).

Kartak idazteko konbentzio oinarrikoak (hasierako formulak, trataerakoak, ondorioa).

## Komunikazioari nola eutsi eta kontrolatu

Norbaiti zerbait errepikatzeko edo mantsoago hitz egiteko eskatu.

Hitz edo esapide batek zer esan nahi duen edo nola itzultzen den galdetu eta adierazi.

Hitz edo esapide bat nola esan edo nola idazten den galdetu eta adierazi.

Mezu bat ulertu den ala ez galdetu.

Egiaztatu norbaitek guk ulertu uste izan duguna benetan esan duen.

Ulertu dugula baieztatu edo aurrera segitzeko adierazi.

Enuntziatu bat edo hitzunak duen asmoa argitu.

Parafraasiak egin.

Bozaren modulazioak eskatu: ozenago edo apalago mintzatzeko.

## Zer gramatika-egitura ikasten dira?

### Eduki formalak

- **Izen sintagma**

- Izena
  - Izen eratorriak: atzizkiak eta aurrizkiak.
  - Izen elkartuak: (*arrain zopa, seme-alabak, txori kaiola...*).
- Izenordainak
  - Pertsona izenordain indartuak: Neu, heu, geu, zeu, zeuek.
  - Izenordain zehaztugabeak: Galdetzaileetatik eratorriak: inor, norbait, nor edo nor, edonor, nornahi...
  - Bihurkariak: (*Jonen anaiak bere burua hil du*).
  - Elkarkariak: (*Josuk eta Mirenek elkar maite dute; bata bestearen atzetik etorri dira*).
- Determinatzaileak
  - Mugatzaileak:
    - *Noiz -a, noiz bat?*
    - *Noiz -ok?*
    - Erakusle indartuak: *hauxe, hauexek, horixe...*
    - Erakusle (izenordain) indartuak: *berau, berori, bera, berak (eurak)...*
  - Zenbatzaileak:
    - Zatiak: *Erdia, herena, laurdena.*
    - Ehunekoak: (*gasolina ehuneko bost (%5) igo da*).
    - Banatzaileak: (*bana, bosna / bakoitza / bakoitzeko*).
    - Zenbait esapide: (*Bizpahiru, hogeit bat / hogeiren bat, baten bat, ehun inguru, gutxi gorabehera, milatik gora, hamarretik hogeira bitartean, milaka...*).
    - Zenbatzaile zehaztugabeak: (*Zenbat, batzuk, zenbait, asko, gutxi, honenbeste, hainbat, ugari, dezente, nahiko(a), aski, pilo bat, makina bat, mordo, apur bat, pixka bat...*).
    - Zenbatzaile orokorrak: *Dena, guztia, oro, oso, bete.*
  - Izenlagunak:
    - -en eta -ko atzizkien arteko nahasketak argitu: (*Elizaren isiltasuna / elizako isiltasuna; hormaren kolorea; kotxeko giltza*).
    - -ko atzizkia:
      - Izena + -ko: (*Anjelez fida zaitezke, berbako gizona da eta*).
      - Izena + izenondoa + -ko: (*indar handiko pertsona da*).
      - Zenbatzailea + -ko: (*lau hankako mahaia; Josu hitz gutxiko gizona da; urte osoko soldata gastatu du auto berrian; zenbateko interesa ematen dizute?*)
      - Adizlaguna + -ko: *Nola/nolako; aditzondoak: (sekulako, egundoko, betiko...); deklinabide kasuak: (nongo, norako,*

zerezko, zeri buruzko...); postposizioak: (bakearen aldeko manifestazioa).

Aposizioa. Komuntzadura: (Amaiak, nirekin lan egiten duenak, istripu bat izan du).

- Atributua eta predikatu osagarriak: *Aukeratu, bidali, bihurtu, bilakatu, egin, egon, hautatu, iritzi, izendatu, kontratatu, joan, sartu...* eta beste zenbait aditzek eragindako mugagabea.
- Prolatiboa. *Eduki, eman, eskaini, hartu, jo aditzei lotutako -tzat* atzizkia.
- Postposizioak:
  - Zer(ik): gabe, faltan, ezean...
  - Zerez: gain(era), bestalde(an)...
  - Nori: buruz, esker...
  - Nondik: kanpo, zehar...
  - Non: zehar, gora, beheara, barrena...
  - Postposizio antzeko aditz lokuzioak: zeri /nori begira, zer(en) / nor(ren) bila, zer eske, zeren/noren zain...
- Deklinabidea.
  - Bereziki nahasketak sortzen dituzten kasuak:
    - Norengatik / norengandik: (*herria(ren)gatik edozer egiteko prest nago /herriarengandik jaso dugun altxorra gorde beharra daukagu*).
    - Norenetik / norengandik: (*gurasoenetik nator, afaltzen gonbidatu naute eta / gurasoengandik ikasi nuen hizkuntza*).
    - Zehaztugabea / zehaztua: (*autobusez / lauretako autobusean; goizez / astelehen goizean*).
    - Norentzat / norentzako: (*umeentzat erosi ditut jostailu hauek / umeentzako jostailuak beharpenetan erosi ditut*).
    - ...
  - Mugagabearen erabilera.
  - Deklinabide kasuak:
    - Nor (Absolutiboa)
    - Nork (Ergatiboa)
    - Nori (Datiboa)
    - Non (Inesiboa)
    - Nondik (Ablatiboa)
    - Nora (Adlatiboa)
    - Nongo (Leku-denbora genitiboa)
    - Norako (Adlatibo destinatiboa)
    - Norantz (Hurbiltze adlatiboa)
    - Noraino (Muga adlatiboa)
    - Norengan (Bizidunen inesiboa)
    - Norengandik (Bizidunen ablatiboa)
    - Norengana (Bizidunen adlatiboa)
    - Norenganantz (Bizidunen hurbiltze adlatiboa)
    - Norenganaino (Bizidunen muga adlatiboa)
    - Noren (Genitiboa)
    - Norentzat (Destinatiboa)
    - Norekin (Soziatiboa)
    - Norengatik (Motibatiboa)
    - Zerik (Partitiboa)
    - Zerez (Instrumentala)
    - Zertzat (Prolatiboa)
    - Norentzako (Destinatibo birdeklinatua)
    - Norekiko (Soziatibo birdeklinatua)
    - Norenganako (Bizidunen adlatibo birdeklinatua)
    - Norainoko (Muga adlatibo birdeklinatua)
- **Aditz sintagma**
  - Aditz lokuzioak: **izan**: *ahal, ezin, nahi, behar, balio, bizi, merezi... izan*; **egin**: *hitz, lo, lan, amets, oihu, barre, negar... egin*; **hartu**: *kontuan, hitza, parte, begitan*

*hartu... hartu; eman: kontu, hitza, denbora, amore, musu... eman; erabili: asmoa, buruan, ahoan... erabili.*

Aditz jokatu gabeak:

- • Partizipio / nominalizazio nahasketak argitu: -t(z)erik / -(r)ik (*ez daukat joaterik / ez daukat nora joanik*).
- Nominalizazioaren erabileran sakontzea: -t(z)ea (*ez da lan makala gazteentzat pisua aurkitzea*); -t(z)eak (*zu berriz ikusteak poza ematen dit*); -t(z)erik (*ez dago zurekin asmatzerik*); -t(z)eari ekin, iritzi; -t(z)en utzi / -t(z)eari utzi; -t(z)etik (*zer aterako duzu gezurra esatetik?*); -t(z)earen; -t(z)earekin; -t(z)eeaz; -t(z)eraino(ko); -t(z)ear; -t(z)eko zorian.
- Gerundioarekin sortzen diren nahasketak argitu: -t(z)en (*poteak hartzen ikusi nuen azkenengoz*); -z (*behar denean galdetuz ez da erraza galtzea*); -ta / -(r)ik (*gezurra esanda/esanik ezin naiz trankil geratu*).
- Gerundioaren bestelako erabilerak: *ezean (zer erantzun ezean geratu zen), batean (negar batean aurkitu nuen), -ki (gazteena izaki), -(e)an (jakinean dago)*.
- Aditz jokatuak:
  - Aditz sintetikoak:
    - orain aldia, iragana *nor (etzan -datza-), nor-nori (egon -dagokizu-, ibili -dabilkizu-, etorri -datorkizu-, joan -doakizu-, jario -dario-), nor-nork (esan -dio-, irudi -dirudite-, erabili -darabilte-, irau -dirau-, jardun -dihardu-), nor-nori-nork (iritzi -deritzot-, esan -diotsut-)*.
    - baldintza *nor, nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork; (balebil, baletoz, baneki, bazenerama, lekarka, letorkidake...)*.
  - Aditz laguntzailearen erabileran sakondu: *nor, nor-nori, nor-nork, nor-nori-nork* eta inpersonalak; baldintza, ahalera, subjuntiboa eta agintera.
  - Indikatibozko aditz formen denbora eta aspektuak: zailtasunak izan ditzaketen formetan azpimarra jarritz.
  - Ekintzen korrelazioa eta denbora - moduen komunztadura. Denboraren trataera informazioa ematean.
  - Aspektua adierazteko bestelako erak:
    - **burutua** *izan-en* erabilera (*askotan joan izan naiz*); partizipio nominalizatua (*liburu hori irakurria dut*).
    - **burutugabea** *ohi* erabiliz (*igandeetan joan ohi naiz*).
    - **etorkizuna**: -t(z)ekoa *izan* (*bihar joatekoa naiz*), -t(z)eko *eduki* (*ikusteko daukat*) -kizun erabiliz (*hori ikuskizun da*).
  - Modalitatea adierazteko:
    - Beharrezana: *ezinbestekoa, nahitaezkoa da ...-t(z)ea*.
    - Derrigortasuna: -arazi (*ezkontarazi gaituzte*), -t(z)era *behartu* (*hori egitera behartu naute*) eta *eragin* (*barre eragin dit*).
    - Ahal izatea: -tze *gai izan*, -tzea *izan*, *egon*, *ukan*, *eduki* eta ahalera (*galde diezaioket, ikus genezake, etor nintekeen*).
      - Baimena (*ba al dut sartzetik?, sar liteke?*).
      - Aukera (*aurkitzen bazaitu, ikusiko duzu; lotsarik bazenu, ez zenioke galdetuko*).
      - Asmoa: (-t(z)ekoa *izan*, -t(z)ekotan *egon/izan*).
      - Desioa edo itxaropena *ahal* partikula erabiliz (*sendatuko ahal da!, lortuko ahal duzu!*).
      - Probabilitatea (*honezkeru iritsiko zen Bartzelonako trenan*).
      - Susmoa (*berandu oheratuko zen eta hortik dauka buruko mina*).
      - Partikula modalak: ote (ete), omen (ei), bide.
  - Adizki alokutiboak:
    - Zer dira?
    - Hi pertsonaren eta lehenengo eta hirugarren pertsonen erabilerak.
    - Nola sortzen dira? Beren ezaugarri morfologikoak.
    - Aditz forma erabilienak.
    - Zertarako erabiltzen dira?
    - Norekin? Erregistro mailak.
    - Zein kasutan ezin dira erabili? Arrazoi gramatikalak.

- **Perpauza**

Hurrengo egituretan sakondu:

- Harridura perpausak:
  - Bai: (*bai ausarta dela umea!; zuk bai jan!*).
  - Erakusleak: (*hau zorte txarra!; polit hori!; ganorabakoa halakoa!*).
  - Ze(r) / Zein: (*ze eguraldi ederra dagoen gaur!; gozo zer dago!; okerra zer da, ba!*).
  - Nolako / Zelako: (*nolako imajinazioa daukazu!*).
  - Ordena: (*ederra kontua!*).
  - Genitiboa: (*gauaren iluna!*).
- Galdegia eta elementuen ordena / Ordena markatuak:
  - Izena: (*aurreko ikasleak erantzun du ondo*).
  - Izenordaina: (*zeuk egingo duzu orain*).
  - Erakuslea: (*horixe da galduta zegoen liburua*).
  - Adberbioa: (*hementxe zeuden poltsak*).
  - Aditza: (*lapurtu egin dizkigute poltsak*).
  - Baiezotasuna: (*badator autobusa; heldu dira gure opariak*).
- **Perpauz elkartua. Juntadura eta alborakuntza**
  - Juntagailuak:
    - Emendiozkoak: eta; ere (ere bai, ere ez, baita...ere, ezta...ere...) bai..., bai...; ez..., ez...; ez ezik ere; bakarrik ez..., ...ere; -la..., -la...; hala..., nola...
    - Hautakariak: edo, ala, edota, (nahiz)...nahiz; (zein)...zein; edo... edo...; ala...ala...
    - Aurkaritzakoak: baina, baizik, baino, ez baina.
- **Perpauz elkartua. Menderakuntza**
  - Izenlagun funtziozko menderakuntza. Erlatibozko perpausak. Bereziki hurrengo alderdiak landuko dira:
    - Zailtasunak sortzen dituzten kasuak nola saihestu: (*\*hitz egin dizudan idazleak etorri dira - aipatu dizkizudan idazleak etorri dira*).
    - Pertsona izenordaina (*maite zaitudan horri emango dizut*).
    - galdegilea + partizipioa (*ez daukat zer jan, nora joan...*).
    - *zein ...bait- / -(e)n* (*orduantxe agertu zen zakur beltz hura, zein txertatu gabea baitzen*); *non... bait- / -(e)n* (*zoaz biltegira, non gorde baititut botilak*).
    - *-(e)neko* (*argazki horiek gazte nintzenekoak dira*).
    - Partizipioaz (*hona hemen ertzainek eskatu agiria*).
    - Galdegile eta erakuslez osatutako esamoldeak:
      - Jokatu gabeko aditzekin: (*zer etorri burura, huraxe esan*).
      - Jokatutakoekin: (*gerizpea non dagoen, hantxe geratuko gara*).
  - Izen funtziozko menderakuntza. Perpauz osagarriak eta zehargalderak:
    - *-(e)n / -lako* (*salbatuko diren esperantzarik gabe / galdu direlako zurrumurrua zabaldu da*).
    - *-(e)na* (*ziur gara lortuko duguna*), *-(e)nik* (*ez dut esan egingo dudarik*).
    - Nominalizazioa: *-t(zea)*, Zalantza sortzen duten kasuak: *-tzea* komeni; nahi +nomin. / nahi+ partizipioa
    - desioa, beharra eta abar adierazteko aditzez osatutako osagarriak:
      - Jokatu gabeko aditzekin (*nahi al duzu laguntzea?, bihar lehentxeago etortzerik ba al duzu?*).
      - Jokatutakoekin (*lana gaur arratsalderako buka dezazuen behar dugu*).
    - *ezen ... -(e)la* (*askotan entzuna dugu ezen gerra garaian gure familiakoek gose gorria pasatu zutela*).
    - *-(e)netz* (*ez dugu erabaki greba egingo dugunetz*).
  - Adizlagun funtziozko menderakuntza: Loturak eta denbora/modu korrelazioa:

Perpauk kontzesiboak:

- Jokaturako aditzekin osaturako formen erabilera sendotu: *-(e)n arren* (egin dezakeen arren, ez du egin nahi), *nahiz eta* *-(e)n* (nahiz eta bigarren mailan gauden, burua beti goian), *ba...* ere (sinesgaitza bazirudien ere, iritsi ginen azkenean), *-la(rik)* ere (nahi duen guztia erosten diotela ere, sekula ez da konformatzen).  
Jokatu gabeko aditzekin: *-ta ere*, *-(r)ik ere* (mesedez eskatuta ere, ez zituen gauzak berehalakoan uzten), *-(e)z gero ere* (garaiz iritsiz gero ere, ez zenuen lortuko), *-agatik ere* (errepidea ondo ezagutuagatik ere, hobe dugu astiro joatea, gabe / barik ere (ezer jakin gabe / barik ere, aditu itxura egiten zuen).  
Esamolde kontzesiboak: *Huts batzuk gorabehera, nahikoa ondo dago idazlana; ametsak amets, errealitatea da aurrean duguna; dioena dioela, zuk ez egin kasurik.*
- Konparaziozko perpauk:  
Aditz modalak, uste, merezi... jokatu gabe + konparazio morfema: (nahi adina, behar beste, merezi bezain ona)  
Aditzak jokaturako + n + konparazio morfema: (hau dirudien baino errazagoa da; hau ez da dirudien bezain erraza).  
Ezin + partizipioa + konparazio morfema: (ezin kontatu adina).  
Bi egitura hauen arteko bereizketa:
  - 1. *zenbat eta [gehiago / gutxiago] ... [orduan / hainbat] eta [gehiago / gutxiago]*
  - 2. *gero eta gehiago / gutxiago* (zenbat eta jende gehiago gonbidatu orduan eta opari gehiago jasoko ditugu).*Bezain / beste konparazio morfemak eta hain / hainbeste maila graduatzaileen arteko bereizketa.*  
Konparazio morfema hauen bereizketa: *bezain, besteko, beste* (beste argi / besteko argitasunik / bezain argia).  
*Hurrengo egituren erabilera:*
  - *ahalik eta, al bait ...-(e)n* (ahalik eta argien atera fotokopiak, mesedez). (ahalik eta jende gehien bildu behar dugu ekitaldian).
  - *-(e)n bezalako* (zaren bezalako izanda, ez zara urruti iritsiko).
  - *-ez bezala / ez bezalako* (beste inork ez bezala maite zaitut) (Miren zu ez bezalako da).
  - *-t(z)eko lain* (ozta-ozta jateko lain irabazten zuten).
  - *Zein baino zein ...-ago* (zein baino zein argiagoak dira).
- Baldintzazko perpauk:  
Jokaturako aditzen erabilera:
  - Alegiazko eta iraganekoen arteko bereizketa: (*\*jakingo banu egingo nuen / jakingo banu egingo nuke*).
  - Iraganeko geroaldia eta alegiazko baldintzen arteko bereizketa: (*itxoingo zigutela esan zuten / eskatuko bagenie itxoingo ligukete*).
  - Baldintza itxura, baina helburu esanahia duten esaldiak: (*irabaziko badugu, jo ta ke entrenatu behar*).Jokatu gabeko aditzekin:
  - *-t(z)ekotan* (gera zaitezketek, baina isilik egotekotan; inora joatekotan, baserrira joan nahi nuke).
  - *ezean* (premiarik izan ezean, hobe da biharko uztea; agindu bezala egin ezean, ez dugu lana ordainduko).
  - *ezik* (Oraingoan asmatu ezik, ez dut berriro jokaturako; bidea erakutsi ezik, nekez aurkituko dugu borda hori).
  - *-t(z)era* (jakitera, ez nizun ezer esango).
- Kausazko perpauk:  
Jokaturako aditzekin:
  - *-(e)la-eta* (buruko mina zuela-eta, etxera laguntzeko eskatu zidan).

- *-(e)la kausa, zio, bide, medio: (edana zela kausa bikotea hautsi egin zen).*
  - *zeren ... bait-/-(e)n.: ez dizut esan zeren uste bainuen jakinaren gainean zinela.*
- Jokatu gabeko aditzekin:
- *Kontzesibo eta kausa edo helburuzkoen arteko bereizketa: (autoa gaizki uzteagatik isuna jarri zioten / autoa gaizki utziagatik ez zioten isunik jarri).*
- Helburuzko perpausak:
- Jokaturako aditzekin:
    - *Subjuntibozkoak: erosoago egon zaitezten ekarri dizut burukoa; ohera ekarriko dizut afaria ez zaitezten jaiki.*
- Jokatu gabeko aditzekin: *-(z)era eta -(z)ekoren bereizketa.*
- Aurreko puntuan aipaturako bereizketa: *kontzesiboa - helburuzkoa.*
- Denborazko perpausak (ikusitako zenbait formen erabilera indartuz):
- Berehalakotasuna:
- *Berehalakotasuna markatzen duen -takoan eta aurrekotasuna markatzen duen: -(z)erakoan atzizkien arteko aldea. (bazkaria amaitutakoan aterako gara / ordaintzerakoan jabetu nintzen diru-zorroa falta nuela).*
  - *-(e)ne(ra)ko (zelaian agertu zeneko, txistuka hasi ziren ikusleak).*
- gerokotasuna:
- *-(e)nez gero (denborazko eta kausazkoen arteko anbiguotasunak) (karrera bukatu zuenez gero, ez zuen libururik hartu -bukatu eta gero- / etxe ondotik pasako zarenez gero -baitzara-, egizu sartu-irten bat).*
- Aldiberekotasuna:
- *-(z)ean (egia entzutean lotsatu egin zen).*
  - *-(z)eaz / -(z)earekin) batera (zaunkaka hasteaz batera korrika hasi ziren guregana).*
  - *-la(rik) (seme-alabei, artean ume zirela, hasi zitzaizen musika irakasten).*
- Iraupena:
- *Iraupenaren azken muga / Iraupenaren tarte osoa. (dirua amaitzen den arte / dirua amaitu arte) (dirua amaitzen ez den bitartean / dirua amaitzen ez deno).*
  - *-harik eta ... arte (harik eta sendatu arte, gelditu egon beharko duzu).*
  - *-la(rik) (pintura lehortu gabe dagoela ez ukitu atea).*
- Maiztasuna:
- *-(e)netan (ohe horretan lo egin dudanetan bizkarreko minarekin altxatu naiz).*
- Moduzko perpausak:
- Jokaturako aditzekin:
- *-(e)n, eran, legez, antzera, gisan (besteek egin duten antzera egizue zeuek ere).*
  - *-(e)nez (lehenago esan dudanez, hori ez da egia).*
  - *-(e)la(rik) (sofan erdi-etzanda zegoen, hankak mahai gainean zituela; txiklea jaten ari zela hasi zaigu hizketan).*
  - *-(e)naren arabera (entzun dudanaren arabera, oker zabiltzate).*
  - *esamoldeak: dagoen dagoenean, ziren zirenean... (obra zegoen zegoenean utzi eta alde egin zuten besterik gabe).*
- Jokatu gabeko aditzekin:
- *-ta, -ik (ulertu ezinik nabil zergatik egin duzun hori).*
  - *Aditzaren elisioa eginda (zigarroa ahoan [zekarrela] igo zen autobusera).*
  - *Partizipioa + bezala, moduan, legez, antzera, arabera (nagusiak aitortu legez, tratua gaizki egin dago).*

- *-(r)jiko, -tako moduan, gisan (esandako moduan saiatu gara egiten).*

Ondoriozko perpausak:

- Lokailu gabeak: *(adarrak hain ziren handiak, teilaturaino iristen baitziren / haizeak infernukoa zirudien, hain zen beroa).*  
Lokailudunak: besteak beste, *halako moldez (halako moldez gogaitu ninduen, non modu txarrean moztu behar izan nion erretolika).*

○ **Testu mailako lotura: lokailuak**

- Emendiozkoak: ere, gainera, bestalde, halaber, orobat, behintzat, bederen, behinik behin...
- Hautakariak: bestela, osterantzean, gainontzean...
- Aurkaritzakoak: ordea, berriz, aldiz, ostera, aitzitik, bizkitartean, bien bitartean, bitartean, alta, alabaina, dena dela, hala ere, hala eta guztiz ere, haatik, hargatik, horratik, barren ...
- Ondoriozkoak. Beraz, bada, hortaz, hortaz bada, orduan, honenbestez, horrenbestez, hainbestez, halatan, hala...

○ **Testu antolatzaileak**

Adibide gisa:

- **Hasiera:** Hasteko, hasteko esan dezadan, lehenengo eta behin, lehen-lehenik, aztertuko dugun gaia, idazki (hitzaldi) honen bidez, idazki (hitzaldi) honen helburua, ...-z hitz egin behar dudalarik, ezer baino lehen...
- **Jarraipena:** Honen ondoren, hau ikusi ondoren, honen ostean, hau ikusi eta gero, hariarekin jarraituz, era berean, bigarrenik, gero, honez gain...
- **Bukaera:** Bukatzeko, amaitzeko, laburbilduz, konklusio gisa, amai dezagun esanez, azkenez, azkenik, eta besterik gabe, honela, laburtuz, hitz gutxitan, horrenbestez...
- **Ordena:** ildo beretik, honekin batera, besteak beste, era berean, ez hori bakarrik, gorago esan bezala, lehen (arestian) esan bezala, are gehiago, beste batzuetan, honen ondoren, berriro ere, gisa berean...
- **Hierarkizazioa:** Batez ere, guztien gainera, baino gehiago, batik bat, ez bezala, ezer baino lehen...
- **Idea berriak:** Gainera, ez ezik ... ere, bestetik, halaber, eta, ez hori bakarrik, bestalde, baita ere, ere bai...
- **Kontrastea:** horren aurka, esanak esan, edozein modutan ere, hori horrela izanik ere, zernahi gisaz (ere), aurrekoaren kontrara, kontuan hartu baina, datorrena datorrela, hori gorabehera, kontuan izan bestetik, nolahi ere...
- **Arrazoia:** Bait-, -nez gero, -la bide, zeren eta, horregatik, -lako, -la eta, -la kausa, behin eta berriro, -tearren, -teagatik, prezeski...
- **Beharrezkoa:** Derrigorrean, ezinbestean, ezinbestekoa da, nahitaez, halabeharrez, beharrezkoa da...
- **Denbora:** Lehen, gaur egun, orduan, gero, antzina, egun batez, XXI. mendean, orain, hasieran, lehenengo egunean, azkenik, behiala, halako batean, beranduago, laster, lehenengo, orain arte, behin (batean), 1997an...
- **Lekutasuna:** Hemen, hor, harantzago, beste tokietan, -en alboan, goian, behean, urrutirago, eskuinean, atzean, aurrean, atzeko aldean, -tik gertu...
- **Adibideak:** Adibidez, konparazio baterako, hori argitzeko, alegia, eman dezagun, konkretatuz gero, esate baterako, demagun, besteak beste, hau da, pentsa dezagun, esaterako, kasu, aipa dezadan, hots, besteen artean...
- **Ziurtasuna:** Ez dago dudarik, onartu behar da, onartuta dagoenez, nola ez!, zer esanik ez, noski, ziurrenez, hala bada ere, onartzen denez, egia da, dudarik gabe, jakina, benetan, zinez, ezbairik gabe, ez dago zalantzarik, argi dago, denok dakigu, ziur egon, jakina denez, bistan dago...
- **Probabilitatea:** Dirudienez, agidanez, antza, omen, ei, inondik ere, itxura denez, itxuraz, badirudi, nonbait, esan daiteke, beharbada, agian, onenean (ere), diotenez,

baliteke, apika, seguru asko, nonbait, dirudienez, antza denez, baliteke, susmatu, uste izan, izango zen, izan zitekeen, omen, ote...

- **Ondorioa:** Esandakoaren arabera, laburki, hau guztia dela eta, funtsean, argi dago, bada, honen ondorioz, horren kausaz, esanak esan, on litzateke, hau dela bide, kontuan izanik...
- **Indartzea:** Aipatu bezala, batez ere, beste era batera esanda, gauzak horrela, hain zuzen ere, lehengo hariari jarraituz, mila bider esana dugun bezala, aipatu dugunez, berriro esanda, dakizuenez, hau azpimarratzeko, hori horrela delarik...
- **Parekidetasuna:** Era berean, bezala, halaber, bezain, baita ere, dela ... dela, legez, orobat, adina, lain, moduan, antzera...
- **Balorazioa:** Zorionez, tamalez, espero dezagun, zoritxarrez, eskerrak, ez legoke gaizki, espero izan...

## Zer komunikazio estrategia garatzen dira?

Hemendik aurrera ikasleari berari dagokio erabakitzea zein estrategia erabili egoeraren arabera.

### 1. Ahozko eta idatzizko ulermenaren estrategiak

#### Planifikazioa

Lanean jarri norberaren ezaguerak entzun edo irakurriko dena aurreikusteko. Jarrera baikorra izan mezuen aurrean, ulertuko direla pentsatu. Entzun edo irakurriko denari buruzko hipotesiak egin komunikazioaren edukiaz eta antolamenduaz, testuingurua eta forma kontuan izanda. Jabetu modu orokorrean ulertzeko gaitasunaz, testuko hitz guztiak ezagutu gabe ere,. Erreparatu hizkuntzaz kanpoko elementuei (irudi, testuaren itxura formala, keinu, tonu, doinu...).

#### Gauzatzea

Erreparatu lehenengo informazio orokorrari, eta gero, bakarrik beharrezkoa izanez gero, zehaztasunei. Konparatu norberaren ezagupen eta esperientziekin. Erreparatu testuaren egiturari eta atalei. Jaso atal bakoitzeko ideia nagusiak. Antzeman diskurtsoaren atal esanguratsuei. Kontuan izan testuan edo diskurtsoan atal batetik bestera salto egiteko erabilitako hitz, egitura edo etenak. Jabetu testuko hitz gakoez. Hitz ezezagunen esanahia asmatzeko baliatu: testuingurua, beste hizkuntza batzuen ezagupena, hitzak sortzeko eta osatzeko arauak (hitz elkartuak, hitz eratorriak, maileguak...)

Aintzat hartu atzean entzun eta ikus litezkeen soinuak, hotsak, edo keinuak. Baliatu norberak duen munduaren ezagupenaz eta eskarmentuaz ulertu ezin diren hitzen esanahia asmatzeko.

#### Ebaluazioa

Egiaztatu egindako hipotesiak. Adierazi zer ez den ulertu. Saiatu mezua hainbat modutan argitzen. Entzun eta irakurri berriro ulertu ez diren pasarteak. Irakurraldi eta entzunaldi bakoitzean alderdi ezberdinei erreparatu.

## 2. Ahozko eta idatzizko adierazpenaren estrategiak

### Planifikazioa

Aurreikusi eta probak egin testua edo diskurtsoa bere atal nagusitan banatzeko: sarrera, atal nagusia eta amaiera.

Aurreikusi gaia garatzeko jorratuko diren ideiak eta horiek adierazteko erabil litezkeen egiturak eta hiztegia.

Bereizi hizkuntza idatzia eta ahozkoa eta egokitu diskurtsoa horren arabera.

Kontuan izan mintzakideak edo irakurleak, edukia zein forma haiei egokitzeko.

### Gauzatzea

Egokitu mezua egoerara.

Erreparatu diskurtso eta testu mota ezberdinen egiturari.

Bereganatu gaia jorratzeko beharrezkoa litzatekeen hiztegia.

Antolatu edukia: eskemak egin, paragrafotan banatu, gaika antolatu.

Erabili lokailu eta testu antolatzaile egokiak.

Bilatu eta bereganatu beharrezko hizkuntz baliabideak.

Jarraitu ordena logikoari.

Erreparatu erduei.

Erabili arriskuak saihesteko estrategiak: ordezkapenak, konponketak, atzera egiteak...

Aukeratu enuntziatu bat egiteko behar diren osagaiak: hiztegia, erregistroa, tonua...

Baliatu autokontrolerako estrategiak: esandakoa zuzendu edo beste modu batean esan.

Erabili konpentsaziozko estrategiak: itzulinguruak, hurbilketak, keinuak, analogiaz sortutako hitzak, antzeko esanahia duten hitzak...

Erabili luzamendurako edo denbora irabazteko estrategiak: betegarriak, errepikapenak...

Erabili esanahiaren negoziatorako estrategiak: ulertu ez dena berriz azaldu edo ulertu denaren laburpena eman.

### Ebaluatzea eta zuzentzea

Konprobatu ulertu den.

Zuzendu gaizkiulertuak.

Berrirakurri helburuak, antolamendua eta zuzentasuna egiaztatzeko.

## 3. Ahozko eta idatzizko elkarreragineko estrategiak

### Planifikazioa

Adierazi bertako hitzuneekin komunikatzeko gogoia.

Jabetu komunikazio egoeraz (mintzakideak, mintzagaia, hartu-eman mota...).

Kontuan izan mintzakideek zer ezagutzen duten eta zer ez.

Prestatu hartu-emana.

Ikasi buruz esamoldeak eta lagunarteko esaerak.

### Gauzatzea

Erabili elkarrizketa era egokian hasi, jarraitu eta amaitzeko prozedurak.

Erabili esamolde egokiak eztabaida batean parte hartzeko eta hitza hartzeko.

Erabili elkar laguntzeko estrategia: laguntza eskatu eta eman.

Gonbidatu beste lagun bat parte hartzera.

Laburtu aurretik esandakoa gaia fokalizatzeke.

Lotu norberak esan nahi duena mintzakideak esan duenari.

#### Ebaluatzea

Baiezatu elkarren arteko ulermena.

Birformulatu enuntziatuaren pasarte batzuk (laburtu, beste modu batean esan...) ideien garapena errazteko.

### **Zein estrategiek sustatzen dute ikaste prozesua?**

Argi izan zertarako behar dugun ikasten ari garen hizkuntza; zeintzuk diren hori lortzeko egin beharrekoak.

Kontrolatu nor bere ikasketa prozesua.

Konprobatu nola ikasten den hizkuntza eta zertarako balio duen jarduera bakoitzak; zein egokitzen zaien ongien norberaren ikasketari eta beharrei.

Probatu teknika ezberdinak.

Bilatu hizkuntza erabiltzeko aukerak (irratia, telebista, prentsa, internet, kalea, lana...), eta probetxua atera modurik eraginkorrenean.

Izan ikasten ari garen hizkuntzaren eta kulturaren aldeko jarrera.

Sakondu nork bere kabuz gehien interesatzen zaizkion alderdi soziokulturaletan eta linguistikoetan.

Ustiatu bereganatutako ezagupena eta komunikazio estrategiak bitarteko gabezia sumatzean.

Erreparatu erreduei.

Deduzitu hizkuntzaren funtzionamendua hizkuntzaren alderdi zehatz batean.

Kontrolatu ondo ulertu den.

Bilatu egoerak ikasitakoa erabiltzeko, hala ikaskideekin nola eskolatik kanpo edo nork bere kabuz.

Trebatu trebetasun guztietan.

Kontrolatu nork bere hutsegiteak; egin "hutsegiteak gainditzeko" koaderno bat.

Berrikusi.

Egin klaseko egunerokoa.

Ebaluatu norberaren eta ikaskideen idazlan eta mintzaldiak, irizpideetan oinarrituta.

Kontuan izan zailtasunak eta gainditzeko moduak.

Zuzendu norberaren hutsegiteak ikaskide, irakasle edo bestelako baliabide didaktikoak erabiliz.